

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafar Lansareak 5,6 milioi bideratuko ditu aurten enpresei zuzendutako laguntzetara

*Laparra lehendakariordea buru, Nafarroako enpresa txiki eta ertainen eta mikro-enpresen % 85i aholkularitza ematen dion Gizarte Gradudunen Elkargoarekiko topaketa egin da*

Astelehena, 2018.eko apirilak 16

Nafar Lansareak gutxienez 5,6 milioi euro jarriko ditu aurten Nafarroako enpresen eskura, enplegua eta prestakuntza sustatzeko nahiz Ekonomia Soziala berriaz garatzeko laguntzen. B bitartez.

laz, kontzeptu horiexei atxikita, 3,8 milioi euro banatu zituen 380 enpresa onuradun ingururen artean, 840 lanposturen mesedetan, eta 2016an, 1,5 milioi euro xahutu zituen.



Ezkerretik eskuinera: Ignacio Catalán, Paz Fernández (NL), Miguel Laparra, David Delgado (Gizarte Gradudunen Elkargoa) y Eva Ontoria (NL).

Eskubide Sozialetako lehendakariorde Miguel Laparrak funts horietaz baliatzeko animatu ditu enpresak, Gizarte Gradudunen Elkargoaren nahiz aholkularitza eta kontsultoretza enpresen berrogeita hamar bat ordezkariarekin egindako informazio-gosarian. Ekitaldian izan dira, halaber, NLko gerente Paz Fernández eta Elkargoko lehendakari David Delgado.

Aurkezpenean, Laparrak beharrezkotzat jo du laguntza publikoen eta enpresen interesen arteko bat-egitea, sortuz joan daitekeen enplegua behar bereziak dituzten biztanleak kontuan harturik banatzeko xedez. Susperraldian kolektibo gehiago txertatu eta gizarte-kohesioa bultzatzeak partekatutako helburua izan behar du.

Gizarte Gradudunen Elkargoko lehendakari David Delgadok adierazi duenez, berak ordezkaten duen kolektiboa prest dago NLaren programetarako laguntza tekniko eta zabalkundeari dagokiona emateko, gizarte-gradudunek enpresa-ehunean duten hedapenari esker.

Lan-merkatuan sartzeko zailtasun handiagoak eskaintzen dituzten sektoreetako enplegua sustatzeko, NLak bost laguntza-ildo deitu ditu aurten, 3 milioi euroko gutxieneko zenbateko erabilgarriarekin, 50 langile baino gehiago dituzten giltzarrizko sektoreetako enpresetan gazteak kontratatzeke; gazteak, desgaitasuna duten pertsonak nahiz Errenta Bermatua jasotzen dutenak praktikan kontratatzeke, eta berrikuntza gisa,

iraupen luzeko langabeak kontratazeko. Iaz, 2 milioi inguru banatu zituen 245 enpresa onuradunen artean, 250 lanpostu inguru sortu zirelarik.

“Laguntzek ez dute behartzen enpresek kontratua egin dezaten, baina bai kolektibo baten edo beste baten alde egin dezaten”, adierazi du Laparrak. Iraupen luzeko langabeei zuzendutako laguntzak izan ez, bestelakoak [www.empleo.navarra.es](http://www.empleo.navarra.es), webgunearen bitartezn eska daitezke, “Laguntzak eta Dirulaguntzak” atalean.

Prestakuntza errazteko, NLak enpresa txiki eta ertainetarako nahiz etorkizuneko langileak prestatzeko zuzeneko laguntzak ematen ditu, 550.000 euroko zenbateko erabilgarriaz. Iaz, 410.000 euro banatu zituen 9 enpresa onuradunen artean, enpresa txiki eta ertainetako 264 langileren eta 319 langaberen mesedetan, hauetako 205ek kontratua lortu baitzuten.

Ekonomia Sozialaren arloari begira, NL 2 milioi euroko berariazko aurrekontuaz baliatzen da zeregin hauetarako: garapena, langabeak bazkidetzat sartzea, bazkide berrien sarrera, enpresak Ekonomia Sozialeko enpresa bihurtzea eta inbertsioak. Iaz, 1,3 milioi banatu zituen 134 enpresa onuradunen artean, 206 lanposturen mesedetan.

Horrez gain, nabarmendu behar da NLak pertsonak langile autonomotzat finkatzeko laguntzak ematen dituela (1,2 milioi euro 2018an), baita enpresetako giza-kapitalaren hobekuntzari dagozkion bestelako programak ere (orientazioa, prestakuntza –oinarrizko mailetatik zuzendaritza arloko gaikuntzetaraino–, etab.).

### **Nafarroako enpresa txiki eta ertainen eta mikro-enpresen % 85**

Gizarte Gradudunen Elkargoak 400 elkargokide ditu; horietatik 130ek beren kasa edo aholkularitza eta kontsultoretzei atxikita dihardute eta beste 40k enpresetan. Nafarroako enpresa txiki eta ertainen eta mikro-enpresen % 85i ematen diete zerbitzua. Era berean, bezeroen ordezkari gisa dihardute lan-arloko epaitegietan eta lan eta lege arloko doako aholkularitza zerbitzua eskaintzen dute, urtean 100 kontsulta ingururi erantzunez.